



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018.10.15

- Alkatea:** Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urriaren hamabostean, 8:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.
- Olatz Peon Ormazabal**
- Bertaratutako zinegotziak:**
Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
- Ez bertaratutako zinegotzia:**
Iñigo Alonso Sarasibar
- Idazkaria:**
Begoña Garmendia Vazquez
- Jarduneko Kontuhartzailea:**
Paulino Alonso Eraso
1. Aurreko akta onartzea.
 2. Onartzea Udaberri Elkarteari diru-laguntza izenduna emateko hitzarmena.
 3. Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2018ko uztaila eta abuztua.
 4. Onartzea 2017. urtean Bedaio auzoko Artubi elkarteari auzoa dinamizatzeko egindako jarduerengatik emandako diru-laguntzaren zuriketa.
 5. Onartzea Hi haiz, hi! Jaialdia lehiaketako deialdia.
 6. 54/2018 eta 55/2018 faktura-zerrenda.

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko urriaren 8an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.



2. ONARTZEA UDABERRI ELKARTEARI DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA EMATEKO HITZARMENA.

Gaia mahai gainean geratu da.

3. ONARTZEA TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEARI EGIN BEHARREKO EKARPEN EKONOMIKOA. 2018KO UZTAILA ETA ABUZTUA.

Aurrekariak

Tolosaldeko Mankomunitatearen Osoko Bilkurak, 2014. ekitaldian, onartu zituen mankomunitateko gastuei aurre egiteko udalek egin behar dituzten ekarpenak finkatzeko irizpide berriak. Irizpide hauek bilketa-sistema desberdinak egotean dute oinarria eta zati finko bat eta zati aldakor bat finkatzen dira. Zati finkoa, komunean dauden gastuei aurre egiteko, eta zati aldakorra, udalek jasotzen dituzten zerbitzuen kostuetan oinarrituta.

2018ko urtarrilaren 17an, Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak 2018ko ekitaldiko aurrekontua onartu zuen, non ekitaldiko gastuen eta sarreraren xehetasunaz gain, udalen ekarpen finkoen banaketaren berri eman zen.

2018ko ekainaren 26an, Gobernu Batzarrak Tolosaldeko Mankomunitateari ordaindu beharreko ekarpen finkoa onartu zuen. 2018ko ekainaren 1etik aurrera ekarpen finkoa, hilabeteko, 91.410,33 €-koa da.

Ekarpen aldakorra jasotzen den hondakin kopuruaren eta bere sailkapenaren arabera da.

2018ko uztaileko datuak	
Ekarpen finkoa	91.410,33
Ekarpen aldakorra	
Tratamendu gastuak	53.616,74
Diru sarrerak	- 22.722,55
Guztira (2018ko uztaila)	122.304,52
2018ko abuztuko datuak	
Ekarpen finkoa	91.410,33
Ekarpen aldakorra	
Bilketa kostuak	46.612,61
Diru sarrerak	-19.555,80
Guztira (2018ko abuztua)	118.467,15



TOLOSAKO
UDALA

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosaldea Mankomunitateak aurkeztutako ondorengo fakturak:

2018 uztaila	122.304,52
2018 abuztua	118.467,15

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Ingurumen Departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

4. ONARTZEA 2017. URTEAN BEDAIO AUZOKO ARTUBI ELKARTEARI AUZOA DINAMIZATZEKO EGINDAKO JARDUERENGATIK EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN ZURIKETA.

AURREKARIAK

2017ko maiatzaren 18an, Tolosako Udalak eta Bedaio auzoko Artubi Kultur Elkarteak hitzarmen bat sinatu zuten. Hitzarmen horretan, beste gai batzuen artean, ondorengo adostu zen:

LEHEN KLAUSULA. G puntua: Jardueren finantziazioa:

Gizarte, kultur, kirol eta auzoko jaien jarduerak finantzatzeko aurrekontu partida bat jartzea, partida honen % 50 urte hasieran ordaintzea, ekintzen memoria aurkeztutakoan, eta beste % 50a urte bukaeran, memoria orokorra aurkeztutakoan.

Artubi Kultur Elkarteak, 2017ko abuztuaren 22an, diru-laguntza eskaera aurkeztu zuen eta ondorengo dokumentazioa aurkeztu zuen:

- 2017ko ekintzak
- 2017ko ekintzen aurrekontua
- Gizarte Segurantzako eta Ogasuneko ziurtagiria

Gobernu Batzarrak, 2017ko irailaren 18an, onartu zuen, alde batetik, Artubi Elkarteari 6.000 euroko diru-laguntza ematea gizarte, kirol eta auzoko jaien jardueretarako eta, bestetik, diru-laguntzaren % 50 aurreratzea.



TOLOSAKO
UDALA

Artubi Auzo Elkartek, 2017ko abenduaren 13an, diru-laguntzaren likidazioa eta ondorengo dokumentazioa aurkeztu ditu:

- Urteko ekintzen behin betiko memoria
- Gastu eta diru-sarreraren likidazioa
- Fakturak
- Gizarte Segurantzako eta Ogasuneko ziurtagiriak

TXOSTENA

Dokumentazio hori aztertu ondoren, hitzarmenean ezartzen diren betebeharrak bete direla ondorioztatzen da.

- Urteko memorian jarritakoa bete da.
- Fakturak eta likidazioa aurkeztu dira.
- Gastatutakoa diru-laguntzaren zenbatekoa gainditzen du.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Bedaio auzoko Artubi Kultur Elkarteari 2017ko diru-laguntza bere osotasunean emateko falta den % 50a ordaintzea, hau da, 3.000 €..

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Ingurumen Departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

5. ONARTZEA HI HAIZ, HI! JAIALDIA LEHIAKETAKO DEIALDIA.

AURREKARIAK

Berdintasun eta Gazteria Departamentuek, EAEko Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko, urtero heziketa-saioak antolatzen dituzte ikastetxeetako (Orixe, Herrikide eta Laskorain) batxilergoko 1. mailako ikasleekin. Helburua da gazteak berdintasun eta



TOLOSAKO
UDALA

indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatzea, prebenitzea eta haien artean berdintasunean oinarritutako praktikak sustatzea.

Era berean, Berdintasun eta Gazteria Departamentuek Hi haiz, hi! Jaialdia, hau da, Tolosan 2010. urteaz geroztik egiten den tokiko lehiaketa antolatzen dute ikastetxeetako ikasleekin. Bi lehiaketetan parte hartzeko oinarriak ateratzen dira, lanek bete behar dituzten baldintzak azalduz (1. eranskina). Lehiaketaren oinarrien zabalpena egiten da oinarriok ikastetxe guztietara bidalita eta Udaletxeko web-orrian publikatuta; horretaz gain, prentsaurreko bat ere egiten da.

Aurten, Hi haiz, hi! Jaialdia abenduaren 19an izango da, TOPICen. Bertan aukera izango dugu ikasleek egindako lanak ikusteko. Egun berean, epaimahaiak 2 lan aukeratuko ditu, sariak bi mailen arabera banatu ahal izateko (1. maila: 12-17 urte; 2. maila: 18-26 urte).

Aurreko guztia aintzat harturik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Berdintasun eta Gazteria Departamentuen deialdiak, EAEko Beldur Barik lehiaketarako eta Tolosako Hi hazi, hi! tokiko lehiaketarako.

BIGARRENA.- Lehiaketen oinarrien zabalpena egiteko, oinarriak ikastetxe guztietara bidaltzea eta Udaletxeko web orrian publikatzea; horretaz gain, prentsaurreko bat ere egitea.

HIRUGARRENA.- Onartzea epaimahaiak aukeratutako 2 lanen (2 mailen arabera) sari-banaketarako diru kopurua (bakoitza 225 €-koa).

LAUGARRENA.- Eskatzea Berdintasun Departamentuari egin beharreko aldaketa edo eranskin proposamena tramita dezala, hemendik aurrera diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzan kasu hau ere jaso ahal izateko.

BOSGARRENA.- Erabaki horiek jakinaraztea Kontuhartzaitzari, Berdintasun Departamentuari eta Kultura, Festak eta Gazteria Departamentuari.



TOLOSAKO
UDALA

6. 54/2018 ETA 55/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzaitzak **54/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **47.389,44 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **54/2018** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Kontuhartzaitzak **55/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **422.475,18 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **55/2018** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA